

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Egiptoko delta laster urpean izango da eta Alejandria uharte

Gizaki modernoaren sehasketako bat izana den Niloko deltak bixaje guztietako inbaditzaileak ikusi ditu bertaratu ondoren alde egiten. Oraingoa, aldiz, gau eta egun munduko baratzerik emankorrenen murkoak jaten dizkion itsasoa, baliteke betirako sartzen aritzea.

HIPATIA JAKINTSU HURA, ZINEETAN *Agora* filmean asteotan erakusten zaiguna, Alejandriako karriketan ikusten dugu beti, Kristo ondorengo V. mende hasierako hiri sofistikatu hartan. 800 urte zituen ordurako Alejandro handiak fundatutako hiriak. Gero eta zabalago zen hiria urteek apaindu zuten konkistatzaile batek hurrengoari lagatzen zizkion eraikinez, liburutegi, antzoki, eliza, orotariko monumentu... Baina justu ziutatearen bueltako harresien beste aldetik betiko bideari jarraitzen zitzaion Niloko delta. Gaur arte.

Hegotik Iparrera, Nilo ibaiaren azken 160 kilometroak hartzen ditu deltak. Kostaldetik, 240 kilometroko zabalera du. Neolitikoan nekazaritza asmatu zutenetik, munduko baratzerik emankorrenetakoak hemen egon dira. Haiek bereganatu nahian pasa dira deltatik antzinateko potentzia nagusiak. Nilon barrena faraoiak iritsi zitzaizkien estreina. Persiarrek gero. Greziarrak Alejandro Handia buru zutela. Erromatarrek ondoren; Kleopatra eta Marcus Antoniusen historia ere hemengoa da. Arabiarrek, otomanoak, Napoleon, Albaniako *pasha*... 1952.ean Gamal Abdel Nasser-ek egiptoarren subiranotasuna berrezarri zuen arte.

The Guardian egunkarirako erreportajea egitera deltera iritsitakoan,

laborari batek baino gehiagok zera esan zion Jack Shenker kazetariari: “Inbaditzaile guztiak uxatu izan ditugu eta itsasoa ere menderatuko dugu”. Baina alderantzizkoa gertatzen ari dela dioten zantzuak topatu ditu edonon Shenkerrek eta alarma etsituz betetako kronika idatzi du: “Niloko delta: Urpera goaz, itsasoa bereganatuko ditu gure lurak”. Eta bigarren lerroburua: “Niloko delta arriskuan dago itsasoa mailaz igotzen ari delako. Hemen produzitzen den janaririk gabe, Egiptok hondamendia nozitu du”.

150 urtez bertan nekazaritzan ari diren familiak aurkitu ditu kazetariak. Maged Shamdy-rena, adibidez, sei belaunaldi baratze gintzan eta arrantzan, kanaletan. Nekazariok berenganatu dute bost mila urteko jakituria, lurraz, landareez, animaliez, ureztatzeaz. Baina gero eta nekezago bizi dira bertan. Lurak eta urak ematen dutenarekin ezin da familia hazi eta hirira ihesi ez doazenez bigarren ofizioaren batean aritu behar dute inguruetan.

Urteotan, izan ere, lurra arras hondatu zaie Nilo ibarretan. Errundunak bat baino gehiago dira. 1970an itxi zioten bidea ibaiari Aswango harresi erraldoiarekin. Egipto modernitatean sartzeko ezinbestekoa omen zen Niloren urteroko uholdeak arautzea. Baina

Kairoko Unibertsitate Amerikarrak webgunean daukan argazki hau Egiptoko deltan dago aterea. Baserritarren umeek posatzen dute ikasle-irakasleen kameran aurrean. Eskubiko goiko aldean ikus daiteke Niloko erriberok ureztatzeko hodietako bat. Egiptoarren erdia bizi da Nilo itsasoratzen den ibar zabalean edo ertzetako hiri erraldoietan. European asko ohartu ez badira ere, Nilo bazterretan leherketa sozial handia berotzen ari dela uste dute adituek. Populazioa izugarri handitzearekin batera, lurraren emankortasuna eten gabe agortzen ari da Neolitikotik zibilizazioen bidegurutze izan diren Niloko baratzeetan. Aswam urtegiak eta urbanizazioak eragindako kalteei —gazitzea, erosioa, kutsadura...— klimaren aldaketak ekarriko dituenak gehituko zaizkio.

aldi berean, urtegiak oztopatuta arras gutxitu ziren Niloko bokale inguruetako ibarretan urtero zabalitzen zituen lohi eta mausarrak. Milaka urtez iritsitako lupetzen ongarririk gabe, berrogei urteotan zekentzen joan dira deltako erriberak.

Inbaditzaileak gaiztoena gatz

Lohi biziemaileaz gain, Aswan dela medio, gero eta urriago iristen da ur geza ere Niloko deltaraino. Ordainetan, itsasotiko ur gaziak hartzen du gezaren tokia. Hori ondo dakite deltako herrietako agintariek, gero eta sakonago zulatu behar dutelako edateko uraren bila. Eta are begien bistanago daukate baserritarrek, haien sailetan lurra gatzetzko zarakarrak estaltzen duelako.

Horri gehitu behar zaio kutsaduraren kaltea. Baratzeak ureztatzeko kanaletatik barrena iristen den ura gero eta zikinagoa da, Aswango presa egin zenetik erabakita baitago hirietan usatutako urez erregadiatuko direla gero ortuak. Ondorioz, lurrari zerbait atera nahi dion laborariak egunetik egunera ongari eta pestizida gehiago astindu behar du.

Baina munduko ekosistemarik emankorrenetako batek ere arazo larriagoei egin behar die orain aurre. Klimaren aldaketari, urbanizazioari eta jende gehiegari.



Dagoeneko asko aldatuta dago Egiptoko itsas hegia uraren igoeratik eta 1970tik Nilok askoz ur gutxiago dakarrelako bokaleetaraino. Egiptoko hieroglifoak ulertzea baimendu zuen harriak munduan famatu egindako Rosetta hiriaren inguruan ehunka metro jan dizkio kostari itsasoak. Hain da larria egoera han, ezen eta Egiptoko gobernuak Txinako enpresa bati eman baitio kostaldea hormigoizko puska erraldoiz finkatzeko lana.

Klimaren aldaketagatik mende hau bukatzerako uraren maila onenean metro batez goratuko denez, Nilo ibarraren %20 utziko du urpean. Hori onenean. Aurreikuspen ezkorragoren bat suertatzen bada, delta osorik geratu daiteke

itota eta itsasoa Kairo hiribururaino iritsi. Alejandria ez dago ugarte bihurtzetik oso aparte.

Kairoko American Universityko zuzendari Rick Totwiler zuzendariak Nilo ibarreko kasua Bangladesheko itolarriarekin alderatu dio kazetariari. “Alde batetik daukazu jende pilaketa handia, gehiegizkoa, bestetik horrek arriskupean jartzen ditu inguruko baliabide naturalak, gero badauzkazu fabrikek, autoek eta nekazaritzak eragin kutsadurak. Eta guzti horri erantsi behar diozu itsasoa goraka datorrela. Horra ekaitz perfektua”.

Antzina erriberotan natura basatia ba omen zen, oiha eta guzti. Baina hori aspaldi zen. Orain 2.000 pertsonaz goiti bizi da hemen kilo-

metro karratuko. Galipota eta betona ere zabaldu dira nonahi. Ez da harritzekoa: 83 milioi biztanle ditu gaur Egiptok (erdia deltan bizi) eta hogeitazko urte barru 110 izango omen dira, nonbait bizi beharko dute.

Lur gutxiago batetik eta dauden baratzeak oso hondatuak, asko gainera gatzak dela medio abandonaturik, milioika jende horiek guztiak zerekin aseko diren galdetzen dute adituek.

Egiptoko agintariak etorkizuna deltako zingiretatik urrun ibaian gora jota ikusten dute, Hegoalderago, Aswan presa inguruetan eta oro har Nilo bazterretan. Horietan erraztasun handiak ematen dizkiete agroindustriako multinazionalak, errio ondoko basamortuan luberriak landu ditzaten. Faraoiek ere amets hori omen zutelakoan.

Baina Jack Shenkerrek elkarrizketatu dituen adituek, hala nola Alejandriako unibertsitateko Salah Soliman irakasleak, uste dute plan horren arazoa deltako nekazariak daukaten bera izango dela: urik eza. “Nazio Batuen Erakundeak pertsonako eta urteko 1.000 metro kubo behar dela kalkulatu du eta Egipton 700etan gabilta. Jendea ugartzearekin, 450era jaitsiko gara”. Hori gutxi balitz, kalkulatu da klimaren aldaketak erdira jaitsiko dituela euriteak Egipton. Ezin pentsatu nekazaritzako mozkinak ugartuko direnik, alderantziz baino.

Alejandria itsasotik babesteko agintariak 222 milioi euro ari omen dira gastatzen. Zenbat gastatu beharko da Egipton lehertzearen den erloju-bonba indargabetzeko? ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net

